

1) BALIO PROPOSAMENA

Gure agentziak bezeroen ongizatea eta tratu pertsonalizatua du helburu nagusi.

Asetzen dugun beharra ez da lehenengo mailakoa, baizik eta bigarren mailakoa; bezeroen ongizatean eragina duelarik.

Hizkuntza berri bat ikasi eta bidaiatzea dira besteak beste asetuko ditugun beharretako batzuk.



Eskaintzen dugun balioa esperientzia oso eta pertsonalizatuan oinarritzen da, hizkuntza berri bat ikasteaz haratago. Kultura desberdinak modu praktikoan ezagutu, mundu osoko pertsonak ezagutu eta trebetasun sozialak garatzen dituzte gure balioari esker.

Beste lehiakideengandik bereizten gaituena bezeroei eskaintzen diegun tratua da; gure helburua ez da soilik etekin ekonomikoa maximizatzea. Horregatik, gure bezeroei ahalik eta zerbitzurik onena ematen saiatzen gara, beraien ongizatea bermatzea delarik gure helburu garrantzitsuena. Hori dela eta, prezio egokiak, informazio fidagarria, zuzeneko tratua... eskainiko dizkiegu, hauen konfidantza lortzeko eta fidelizazioa mantentzeko. Ikasketa interaktiboa eta laguntza pertsonalizatua, bereizten gaituzten trebetasun batzuk dira.

Teknologia berriak erabiltzen ditugu, hala nola, aplikazioak, web-orriak... ikaskuntza jarraitu eta eraginkorragoa gauzatzeko. Gainera, guk eskaintzen dugun zerbitzuaren barruan seguru mediku bat sartzen da, horrela edozer gauza pasatzen bada irtenbide bat eman ahalko zaio.

Gure enpresak bi motatako balioak eskaintzen ditu: balio kualitatiboa eta balio kuantitatiboa. Balio kualitatiboa, langileek jasotzen duten prestakuntzan, bezeroei eskaintzen diogun tratu pertsonalizatuan eta merkatuan dugun lehiakortasun nagusian islatzen da. Hau guztia, gure zerbitzuen kalitatea eta gure bezeroen esperientzia hobetzen laguntzen du. Bestalde balio kuantitatiboak, ezartzen ditugun prezio zein erabiltzen ditugun materialetan islatzen da.

Gure agentziak bezeroei esperientzia ahaztezinak eskaintzeaz gain, norbanakoaren garapen pertsonal eta profesionalari bultzada ematen dio. Lan egiteko trebetasunak hobetzeaz gain, autonomia sustatzen dugu.